

## MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA (2006)

Irailaren 16tik 22ra

Legazpiko Udalak Mugikortasunaren Europako Astearen alde egin du eta horrela adierazi du sinatu berri duen Atxikitze-gutunean. Honako hau da aurtengo lema: **“ZEURE KONTROLPEAN DAGO KLIMA-ALDAKETA. Joan zaitetz oinez, bizikletaz, autobusez. Autoan beste batzuekin. ALDATU”**. Horrekin toki batetik bestera joateko erabiltzen ditugun garraioez hausnarketa bultzatu nahi da.

Europako beste hiri eta udalerritan egin den bezalaxe, hainbat ekintza antolatu dira gure herriko bizilagunak leku batetik bestera joateko dauden beste aukerak erabiltzeko beharraren gainean sentsibilizatzeko: oinez, bizikletaz, autobusez, trenez...

Astean zehar ekintza desberdinak burutuko dira. Baina denetatik **irailaren 22a** izango da egun bereziena, egun horretan ospatuko baitugu **“AUTORIK GABEKO EGUNA”** lemapeko eguna; egun horretan ahalegin berezia eskatuko diegu herritarrei autoa erabil ez dezaten eta, modu horretan, leku batetik bestera joateko dauden aukera desberdinak erabiltzearen abantailak ezagut ditzaten (kutsadura eta zarata gutxiago, elkarren arteko harreman handiagoa....)

### LEGAZPIN EGINGO DIREN EKINTZAK

EGUNA	ORDUA	TOKIA	EKINTZA
18-22	Egunean zehar	Plazaola kalea	<b>“ZEURE KONTROLPEAN DAGO KLIMA-ALDAKETA”</b> : Toki batetik bestera joateko dauzkagun ohiturek Klima-Aldaketan duten eraginaz ohartuko gara kalean jarriko diren kartelen bitartez.
18-22	Astelehenetik ostegunera: 08:00 – 13:00 15:00 – 17:00  Ostiraletan: 08:00 – 15:00	UGGASA Tel: 943 726164 (Josune)	<b>INGURUMENARI LAGUNDUZ GIDATZEKO IKASTAROAN izen-ematea</b> . EVE taldeak (Ente Vasco de la Energia) INGURUMENARI LAGUNDUZ GIDATZEKO IKASTAROA eskainiko du. Gidatzeko jarraibide erraz batzuekin errekin gutxiago kontsumitzen eta CO2 gutxitzen ikasiko dugu. Ikastaroa <u>doan</u> da eta 4 orduko da (bi ordu teoriko eta bi praktikoa). Parte hartu ahal izateko gidatzeko agiria eta gure economía eta ingurumena zaintzeko gogoia besterik ez da behar.
22	10:30	Udaletxeko Batzar Aretoan	<b>PRENTSAURREKOA</b> : “Autoan elkarrekin” izeneko web orri berria aurkeztuko da. Helburua, ohiko ibilbide berdina (ikastera, lanera...) edo ibilbide zehatza bat (bidaia bat) egiten duten pertsonak elkarrekin harremanetan jartzea eta autoan elkarrekin joatea da. Modu horretan leku batetik bestera joateko aukera desberdinak eskaintzen zaizkie legazpiarrei, beti ere iraunkortasunaren bidean; horrela jokatzuz helburu desberdinak lortuko genituzke: autoek sorteen duten kutsadura eta energia-kontsumoa murriztu eta eremu publikoa hobeto erabili.
22	18:30	Goierrri taberna (Urtatza) - Arantzazu - San Inazio (Muru) - Juanastegi - Aiztonaga - Aizkorri kalea - Nagusia - Plazaola - Euskalerrria enparantza.  Gazteenak eta beranduago iristen direnak Aizkorri kaletik plazara zuzenean joango dira.	<b>BIZIKLETA IBILALDIA</b> . Laguntzaileak: Korosti Txango Elkarte eta Telleriarteko Txirrindulari Elkarte. Kontutan izan: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ibilaldia ez da lasterketa bat, gure herrian bizikleta erabiltzeko erreibindikazio-ekintza baizik. Hori dela eta, abiadura orduko 20 kilometrora mugatu dugu.</li> <li>• ¡!!! Derrigorrezkoa da kaskoa eramatea !!!!</li> <li>• Bukaeran: otartekoak eta oparien zozketa.</li> </ul>